

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3477

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 1ekoa, Joko eta Ikuskizunen zuzendaria, zeinaren bidez ezartzen baita post-mortem ausazko analisiak egitea zezenketa-abelburuei 2025eko zezenketa-denboraldian.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, bere eskumenen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren ikuskizunen osotasuna zaindu eta ikusleen eskubideak defendatu behar ditu.

Bigarrena.– Zezenketa-gaien Euskal Batzorde Aholku-emaileak, zezen-ikuskizunei buruzko kontsulta- eta aholkularitza-organoa den aldetik, 2015eko otsailaren 25eko ohiko bileran eztabai-datu zuen komenigarria izango zen ala ez zezenketa-abelburuei postmortem ausazko analisiak egitea, ikuskizunaren osotasuna zaindu eta haren kalitatea hobetze aldera.

Hirugarrena.– Aurreko zezenketa-denboraldiko emaitzak ikusita, kontuan harturik ikuskizun mota hauetan ikusleen eskubideen errespetua bermatu behar dela eta ikuskizuna bera zorrotz egiten saiatu behar dela, egokia da 2025eko zezenketa-denboraldian administrazio-kontrol berdinak egitea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas-Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 8.b) artikulua hauxe ezartzen du: «...honako eskubide hauek izango dituzte ikuskizunen eta jolas-jardueren ikusleek: a)..., b) Ikuskizuna ikusteko eskubidea edo jolas-jardueran parte hartzekoa; horiek guztiak, gainera, osorik eta enpresak iragarritako moduan eta baldintzetan jasotzeko eskubidea».

Bigarrena.– Euskadiko Zezen ikuskizunei buruzko Araudiaren 55.10 artikulua ezartzen du, ikuskaritza eta kontrolari dagokienez, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak post-mortem egindako ausazko azterketak egin litzakeela; 57.10 artikuluan, aukera ematen du ausazko azterketak pikatzeko zaldiei ere egiteko. Hau da, Euskadiko Zezen-ikuskizunei buruzko Araudiak Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari, berariaz, horrelako analisiak egin daitezela agintzeko ahalmena ematen dio. Ausazko lagin horiek hartzeak ez ditu kaltetzen ikuskizun-buruak erregelamendu bidez ezarrita dituen ahalmenak.

Agindu horiek eta aplikatu beharreko gainerako araudia ikusita, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak aitortzen dizkidan eskuduntzez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ausaz laginak hartzea 2025eko zezenketa-denboraldian EAeko lehenengo mailako zezen-plazetan toreatzen diren abelburu batzuei. Laginak hartu ondoko post-mortem analisisiek ikuskaritza eta kontrola egitea izango dute helburu.

Bigarrena.– Laginak hartu eta, gero, aztertu behar dira, Euskadiko Zezen ikuskizunei buruzko Araudiaren 55. artikulua 4. eta 5. apartatuetan ezarritakoa eragotzi gabe.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ezartzen dituen ausazko laginak hartzeko orduan, zehaztaper hauek kontuan hartu behar dira:

1.– 2025. urtean EAEko lehenengo mailako zezen-plazetan egiten den zezenketa bakoitzean toreatuko diren abelburuetako bakar bati hartu ahal zaizkio laginak.

2.– 2025eko zezenketa-denboraldian ausazko laginak adarrei baino ez zaizkie hartuko.

3.– Laginak hartu ahal zaizkie 4 urteko edo 4 urtetik gorako oinez toreatuko diren zezenketa-abelburuei (arrak).

4.– Zezenketa bakoitzean lehenengo, eta zozketa hutsez, ezarriko da laginak hartuko diren ala ez, baldintza hauen arabera:

a) Ikuskizunak egin behar diren egunetan, goizean, zezenketa-ordena zehaztuko da, eta abereak bakartuko dira; eta, gero, zozketa hutsa egingo da.

b) Zozketan hauek egon behar dira: plaza-burua edo ikuskizun-burua, abeltzaintza-etxeetako ordezkaria, enpresa antolatzailearen ordezkaria, ikuskizunerako izendatu den abelburuen albaiaria eta plaza-ordezkaritza. Esandako pertsonak ez azaltzeak ez du zozketa egitea ekidingo.

c) Zozketa horrela egingo da: poltsa opaku baten barruan plaza ordezkartzako partaide batek itxura bereko bi bola sartuko ditu, bata gorria eta bestea zuria.

Beste plaza-ordezkaritzako partaide batek bi boletako bat aterako du eta, bola gorria ateraz gero, ikuskizun horretan toreatuko diren abelburuetako bati laginak hartuko zaizkio; bestela, bola zuria ateraz gero, ez zaizkio hartuko.

5.– Lagina hartuko dela ezarri bada, bigarren zozketa bat egingo da laginak zein abelbururi hartuko zaizkion zehazteko. Horretarako, zaku opaku batean ikuskizunean oinez toreatuko diren abelburu adina bola sartu behar dira. Plaza-ordezkaritzako partaide batek sartuko ditu bola horiek. Bola guztiak berdinak izango dira, eta ondoz ondoko zenbakiak izango dituzte, «1»etik hasita, ikuskizunean toreatuko diren abelburuen kopurura heldu arte. Orduan, beste plaza-ordezkaritzako partaide batek bola bat aterako du, eta bola horrek daraman zenbakia zein den, ordenan leku horretan dagoen abelburuari hartuko zaio lagina.

6.– Plaza-ordezkaritzak zozketen emaitzak akta berriemaile batean jasoko ditu, eta bertan egon diren guztiek sinatuko dute.

7.– Abelburua hil ostean, laginak hartu eta analisiak egingo dira, Segurtasuneko sailburuaren 2015eko abuztuaren 3ko Aginduan ezarritakoaren arabera; agindu horretan arautzen dira zezen-ikuskizun orokorretan lagin biologikoak hartzeko eta aztertzekeko prozedura, eta lagin horien analisiak egiten dituzten laborategiak homologatzeko prozedura.

8.– Abelburuak giza kontsumorako erabiliko badira, abenduaren 9ko 1086/2020 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak bete beharko dira (1086/2020 Errege Dekretua, Europar Batasunaren xedapenak aplikatzeko baldintza jakin batzuk arautzen eta malgutzen dituen, elikagaien ekoizpenaren eta merkaturatzearen higienaren arloan, eta haren aplikazio-eremutik kanpo dauden jarduerak arautzen dituen).

Erakunde edo pertsona antolatzaileak, edo, hala badagokio, plazaren titularrak, pertsona bat izan beharko du abereak hiltegiara eramateko prestatzeko behar adinako ezagutza eta trebetasuna duena, aipatutako Errege Dekretuaren 24. artikuluko jarraibideen arabera.

Pertsona horrek adarrak moztu ahal izango ditu, abeltzaintzako albaiari-taldearen jarraibideei jarraituz.

Laugarrena.– Ebazpen hau jakinarazi behar zaie Zezen-ikuskizunetako Antolatzaileen Elkarte Nazionalari, zezenketa-abelburuak hazten dituzten abeltzaintza-etxeak ordezkatzeko dituzten elkarteei, zezen-plazetako buruei, Euskal Autonomia Erkidegoko zezen-plazetako titularrei, Foru Aldundien Abeltzaintza Zerbitzuei eta plaza-ordezkaritzari.

Bosgarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

Ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen. Beraz, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal zaio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Segurtasuneko sailburuordeari, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, horrela ezarri baita Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2025 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 1a.

Joko eta Ikuskizunen zuzendaria,
NEREA ALDAY GARATE.